



Oier Irazusta (ezkerrean) eta Markel Berasaluze (eskuinean), Antiguako sansebastianetako jai batzordeko kideak.

## Frontoia bueltan, jai gune nagusiaz gozatu ahal izango dute Antiguak

Hainbat berritasunekin datoz aurtengo Antiguako sansebastianak. Frontoia erabilgarri izango dute berriro ere, eta garai batean egiten zen krosa berreskuratu dute, arrakasta handiz.

📷 Sara Ibarguren Etxeberria

**A**ntiguako sansebastianak berritasun ugarirekin datoz aurtengoa. Alde batetik, jai batzordean belaunaldi aldaketa izan dute, eta lehengo antolatzaileek auzotar gazteagoi eman diete lekukoa. «Guretzako berria zen antolakuntza lehen lerroan aritzea, baina aurreko urteetan egindako lana hartu dugu erreferentzia gisa», azaldu dute Oier Irazusta (Antigua, 2004) eta Markel Berasaluzek (Antigua, 1998), jai batzorde berrituko kideak.

Biak ala biak antolakuntza taldean aritu izandakoak dira lehenago ere, baina bigarren plano batean. Aurtengoa, iaz ez bezala, frontoia zabalik egoteak antolakuntza erraztu diela pentsatzen dute. «Aurreko urtean, frontoia ez genuenez, beste jai gune bat muntatu behar izan genuen karpa batekin. Azkenean, asteburu bakarrek jaiak egin behar izan genituen, eta hori ez da ohikoena hemen. Aurtengoa, berriro asteburu luzea sansebastianekin amaituko dugu, eta beste asteburu bat ere izango dugu», adierazi du Irazustak. Horrela, egitaraua gaurtik hilaren 20ra eta 24tik 26ra bitarteko jarduerekin osatu dute.

### Kirol jarduerak, berritasun nagusi

Antiguako krosa berreskuratu dute aurtengoa, eta «sekulako arrakasta» izan duela baieztatu dute antolatzaileek: «Astebeteren faltan, 500 izen emate pasatu ditugu». 2012ra arte egin zuten kros hori auzoan, Platero atletismo taldeak antolatuta, eta atzera begira-

**Triku Harri**  
 taberna *sjatetxea*  
 Ondo pasa jaietan!  
 Matia Kalea 35, Antigua  
 www.trikuharrijatetxea.com

**Ondo pasa!**  
 Orduetgia: 09:00etatik 19:30etara.  
 Larunbatetan 10:30etatik 13:30etara.  
 Andrestegi, 2 behea  
 ANTIGUA - Donostia  
 943-22 38 98 - 663875255  
 deltapapelerias@gmail.com

PAPELERIA **DELTA** FAPERORRIDA  
 deltapapelerias

tuz, 1925eko kroseto argazkiak ere topatu dituzte. «Ikusten genuen auzoan parranda asko zegoela, kultura ere bai, baina kirol aldetik, aurten krosak indar handia izango du», nabarmendu du Irazustak.

Horrez gain, Ziklokross Kinkia ere egiten dute, eta aurten, ondo funtzionatu duen beste jarduera bat emakumeen pala txapelketa izan da. «Horrez gain, giza proba egingo dugu Istingorra kalean», adierazi dute.

Hala ere, berritasun guztiak ez daude kirolarekin lotuta. Izan ere, lehen aldiz, Holi festa egingo dute, Ongi Etorri Eskolarak antolatuta.

#### Kontzertu handi bat

Jarduera berriez gain, lehendik bazeudenak indartzeko apustua ere egin dute aurten. Hain zuzen ere, kontzertuei dagokionez, «talde indartsu bat» ekartzea erabaki dute: Skabidean taldea igoko da oholtzara bihar. «Auzorock deitzen den asteburuan, auzoko musikariei agertoki baten gainean jotzeko aukera ematen diegu, eta bigarren egunean, Antigua rock egunean, Skabidean ekarriko dugu. Ea nola ateratzen den, baina guk aurreikusten dugu jende asko mugituko dugula. Antiguako auzotarrez gain, Donostia guztiko jendea etortzea nahi dugu, baita Gipuzkoa osora zabalduta ere», azaldu du Berasaluzek.

Frontoia berriro ere erabilgarri dutenez, jai gune nagusia bihurtuko da berri. Frontoira itzuliko dira txosnak, eta kontzertuetarako agertokia ere bertan izango da. ●



## OSTIRALA 17

### 15:30 · Antiguako frontoian

Jakintza ikastolako danborrada.

### 16:30 · Jakintzako beheko eraikinetik

Haurren jaitsiera musikatua.

### 17:00 · Gaskonian

Holi festa, Ongi Etorri Eskolararen eskutik.

### 18:00 · Gaskonian

Txokolate jana.

### 18:30 · Auzoan zehar

Zezensuzkoa.

### 19:00 · Bentaberriko plazan

Luntx herrikoia, AntiguaOttarrak kontsumo taldea eta Ongi Etorri Eskolara btaldearen eskutik, hango eta hemengo garaiko produktuekin.

### 19:30 · Bentaberri plazan

Txupinazo antiguatarra.

### 19:45 · Antiguako zehar

Poteo elegantea, Skapaie elektrotxarangarekin eta edabe magikoz lagunduta.

### 22:30 · Antiguako frontoian

Zeba, Cold Noize eta Albarruna DJ-ak.

## LARUNBATA 18

### 10:00 · Antiguako frontoian

Haurrentzako puzgarriak, Realaren fundazioaren eskutik.

### 11:00 · Auzoan zehar

Buruhandi eta eraldioak, musikarekin girotuta.

### 16:30 · Antiguako frontoian

Kiki eta Koko:  
Bizi-Bizi zirkua, Lugaritz Kultur Etxearen eskutik.

### 17:00 · Txirain elkartean

Mus txapelketa.

OLIVOS  
TABERNA · JATETXEA

Gora Antiguako jaiak!

Jose txo Erregezaintza 4,  
DONOSTIA  
Irurtia Balerdi · Tel.: 943-21 49 89

**18:30 · Istingorra kalean**

Giza proba, Antigua vs Hernani, Sareren eskutik.

**19:00 · Auzoan zehar**

Poteo musikatua kantu kantari, auzoko musikariek.

**19:30 · Lugaritz Kultur Etxean**

Antzerkia: Susto.

**22:00 · Antiguako frontoian**

Antigua Rock: Les Testarudes, Skabidean eta Aiakate DJ-a.

**IGANDEA 19**

**12:00 · Txirain elkartean**

Toka txapelketa.

**12:30 · Bentaberri plazatik**

Kros herrikoia eta hauren krosa.

**19:00 · Antiguako kaleetan zehar**

Iraunkorrak txarangarekin kalejira.

**00:00 · Gaskonia plazan**

Ikurrinaren igoera, Sansustene elkartean danborradaren eskutik.

**03:00 · Matia kalean zehar**

Danborrada herrikoia antiguatar guztiontzat, Iraunkorrak txarangak lagunduta.

**ASTELEHENA 20**

**07:00 · Alfontso XIII.a plazatik**

Gaszte danborradaren irteera.

**12:00 · Antiguako frontoian**

Gaupaseroen argazkia.

**00:00 · Gaskonia plazan**

Ikurrinaren jaitsiera.

**OSTEGUNA 23**

**18:00 · Antiguako frontoian**

Emakumeen pala txapelketako fase finala.

**19:00 · Lugaritz Kultur Etxean**

+55 gospel abesbatza.

**OSTIRALA 24**

**16:30 · Jakintza eskolako goiko eraikinetik hasita**

Umeen masa txikia.

**16:50 · Gaskonia plazan**

Haurrentzako ginkana.

**17:15 · Auzoan zehar**

Auzotik bizikletaz buelta musikatua. Ibilbidean zehar hainbat geldialdi egingo dira bertsolariek girotuta.

**17:30 · Sert plazan**

Kuadrilla Olinpiadak, Auskalo aisialdi taldearen eskutik.

**18:00 · Pio Baroja parkean**

Ziklokros kinkia eta ziklokontzertuak.

**19:30 · Lugaritz Kultur Etxean**

Kontzertua: Kuttune.

**22:00 · Antiguako frontoian**

Kontzertuak: The Dogs, Agur eta Armari.

**LARUNBATA 25**

**11:00 · Auzoan zehar**

Buruhandiak era erraldoiak.

**PLATERO**  
taberna  
Ondo pasa jaietan!

**MiKEL**  
Harategia · Urdaitegia  
Ondo pasa Antiguako jaietan!  
  
Juan de Garai kalea, 1, 20008 Donostia  
943-21 29 63 · 615-75 26 33

**La MERA MERA**  
  
@lamerameradonosti  
Matia kalea, 38 - Donostia - Tel.: 943-96 85 75

### 11:30 · Auzoan zehar

Joaldunak, Antiguotarrak joaldun taldearen eskutik.

### 13:00 · Antiguatik Ibaetaraino

Iraunkorrek txarangarekin kalejira.

### 15:00 · Ibaetako frontoian

Kuadrillen bazkaria.

### 17:00 · Alfontso XIII.a plazan

+2 urte txikien gunea. Marrazki tailerra haurtxokoaren eskutik.

### 17:00 · Alfontso XIII.a plazan

5-11 urte haurtxoko gunea. Aurpegi margoketa haurtxokoaren eskutik.

### 17:00 · Alfontso XIII.a plazan

12-17 urte gazteleku gunea. Jolasen gunea eta zigilu tailerra gaztelekuaren eskutik.

### 18:00 · Alfontso XIII.a plazan

5-11 urte haurtxoko gunea. Paperezko txotxongilo tailerra.



### 18:30 · Alfontso XIII.a plazan

12-17 urte gazteleku gunea. Herri kirolak gaztelekuaren eskutik.

### 18:30 · Merkatu zaharreko gaztelekuan

Gaztelekuja jaietan.

### 18:30 · Ibaetako frontoitik txosnetaraino

Bizi DJ-a.

### 19:00 · Alfontso XIII.a plazan

5-11 urte haurtxoko gunea. Jolas dinamikoak.

### 19:00 · Istingorra kalean

Bodegon fest. Soka eta Biraka DJ-ak.

### 19:30 · Lugaritz Kultur Etxean

Bakarrizketa: Miguel Noguera.

### 22:30 · Antiguako frontoian

Muxutruk erromeria.

### 01:30 · Antiguako frontoian

Vaquillak Zerek DJ-a.

## IGANDEA 26

### 16:30 · Antiguotarrak elkartean

Mus txapelketa.

### 17:00 · Antiguako frontoian

Bertso saioa: Aitor Mendiluze, Nerea Elustondo, Libe Goenaga eta Peru Aiertza.



LEGAZPI 6  
EUSKALTEGIA

## Antiguako jaietan ere, euskara lagun!



Guridi Maisua, Z/G, Antigua · Kanpandegi, 1, Parte Zaharra



943-2199 07



legazpi6@legazpi6.eus

## Euskara eroso bizitzeko

aek  
euskara praktikoa



## DONOSTIA

### EUSKARA - IKASTAROAK

Antiguako AEK · Erregezain, 22  
943 21 80 88 · antigua@aek.eus

Amara Berri AEK · Ordoñez 7 (ARCCO parean)  
943 47 45 92 · amara@aek.eus

Groseko Irrintzi AEK · Iztueta 3, behea  
943 32 76 11 · gros@aek.eus

